

GIZARTE SAREAK PERTSONEN SAREAK

Aritz Anasagasti Undabarrena

“Ezagutu dezagun
elkarrekin
ziberespazioa”



Gizarte sareak ez dira erreferenteok gure seme-alaben intimitatea garatzeko erabiltzen ditugun altxor kutxatxoak.

Gizarte sareak benetako mundurako lehio eta ateak dira.

“11 urteko neskatila bat logelako leihora irteten da ia-ia egunero etxe aurretik igarotzen diren pertsonekin hitz egiteko. Batzuetan, leihotik bere logela erakusten die, zenbait gauza kontatzen die eta, zenbait pertsonak, zenbait unetan, neskarekin hitz egiten dute. Batzuetan, pertsona batzuekin ados jartzen da kalean elkar ikusteko. Gurasoek asko errespetatzen dute neskaren intimitatea, eta ez dira inoiz joaten neskarengana hark leihotik hitz egiten duenean; gainera, ez diote gehiegi galdetzen leihora hurbiltzen diren pertsonen inguruan. Neska nahi duen guztietan leihora irteten da, edo norbaitek ezin badu lo egin, etxe horretara joan, eta neskaren leihoan jotzen du.”

Erraz kontura gaitzke zer erasogarri izan daitekeen aipatutako neska egoera horretan. Egoera hori, interneten bidez une honetan gure seme-alabek bizi dutena da. Seme-alabak, aurrerantzean, adingabe deituko ditugu.

Internet, azken urteotan gertatutako giza komunikazio iraultzarik handiena izan da. Gure logelatik irten gabe, munduarekin komunikatu eta elkarreragin dezakegu (modu literalean).

Aukera itzela ematen digu, eta badakigu ezin dugula ezta imajinatu ere egin zer gertatuko den 5 edo 6 urte barru; izan ere, gizarte-aldaketak oso azkar gertatzen direnez, ez gaituzte harritzen, eta gertatzen den horretara ohitu baino ez dugu egiten.



“Bazterketa zibernetikoa” adingabe batzuek jasan duten arazo bat da, ikusi baitute beharrezkoa dela ziberespazioan agertzea.



Baina adingabeei buruz ari garenean, batzuetan ez dakigu egoera horretan nola jokatu, beraiek aditu baitira, eta gu, euren erreferenteak, hasiberriak.

Intimitaterako eskubideak, konfiantza, segurtasunak, arriskuek, ziber-jazarpenak eta beste elementu askok osatzen dute gizarte-sare hori, eta behar-beharrezkoa da jokatzeko modu bat ezartzea; modu horrek, pertsona guztien beharrei erantzun beharko die.

Adingabeentzat, sarea mundua ezagutzeko, ikasteko edo/eta gizartearekin harremanetan jartzeko aukera bat da. Pertsona berdinez osatutako beste talde batekoa izatea eta hortxe agertzea da. Mundura irekitako leihoa da, horrek dituen ondorio guztiekin. Eta internet bada ere, mundua ere literala da.

A d i n g a b e e n e r r o n k a , zibernetikaren bidez ondo moldatzeko beharko dituzten zenbait gaitasun ikastea da. Hasieran, bitarteko ludikoa da, ondoren profesionala izango da, askok lanpostua lortuko dute horren bidez, eta batzuek lana internet bidez gauzatuko dute.

Adingabeak, bilakaeran dagoen mundu baten benetako miatzaile bihurtzen dira. Mundu horren ingurukoak ez dituzte ezagutzen ezta hori asmatu zutenek ere. Bilakatzen den bitarteko kaotiko horren inguruko ikaskuntzarako oinarriak ondokoak izango dira: jakingura, intuizioa, sarearen beraren bidez ikasitakoa etab.

Hori dela eta, argi dago erreferenteok laguntzeko gai izan behar dugula —mundu ukigarrian laguntzen diegun moduan—, euren burua garatzen, zaintzen eta babesten, maitatzen eta baloratzen, baita informazio eta komunikazioaren gizartearen mugak finkatzen ere.

Erreferenteen erronka, beraz, ondokoa da: nola gidatu gu baino gehiago dakiena, azkarrago dabilena eta arinago ikasten duena.

Hasteko, jakin behar dugu, mundua edozein izanda ere (informatikakoa, ukigarria, edo dena delakoa) gure adingabeentzat garrantzitsua dela erreferenteek erreferente moduan joka dezaten. Ezin dugu ardura alde batera utzi adingabeek gehiago dakitelako, edo haiek erakusten digutelako.

Egia da, adingabeek erakutsiko digite erreminta horiek erabiltzen, ziberkomunikazioaren gizarte-arauak edo erabilera-arauak zein diren ere esango digute agian, baina erreferenteok balioetsi egin behar ditugu erabilera horiek.

Adingabeak eremu babestu batean aritu arren, adibidez, logelan, euren arteko gizarte-interakzioa benetakoa da, eta pantailaren atzean (mugikorra, tableta edo ordenagailua izan) benetako mundua dute. Ez dira bideo-jolas itxi baten bidez elkarrekin ari, benetako munduarekin ari dira, eta pantaila lauaren atzean beste gizaki batzuk daude, eta benetako gizakiak dira.

11 urteko neskaren adibidearen bidez, erraz ikus dezakegu zein erasogarri den eta babesik gabe dagoela, baina elkarrekintza digital bakoitzean adingabeak leiho horretan bertan daude.

Zein izan beharko litzateke erreferentearen rola leihora irteten den neskaren aurrean?

Alde batetik, esan dugu ezin dugula leiho hori kendu, adingabeak mundutik at utz dezakegulako, baina, beste alde batetik, babestuta dagoela ziurtatu behar dugu.

Konfiantza da erronka horren aurrean dugun armarik onena. Konfiantza ez da nahi dutena egiten uztea, dena ondo joango dela pentsatzea, erabakitzen jakingo dutela ustea. Konfiantza ez da hori.

Adingabeekin garatu beharreko konfiantza beste bat da: beraiekin ezartzen dugun harremanaren konfiantza da. Konfiantza izan behar dugu beraiek erakutsiko digutelako zer munduan mugitzen diren, han egon behar dugu eta egiten dutena gainbegiratu behar dugu, baina diren moduan izaten utzi behar diegu, zerbait gertatzen bazaie esango digutelakoan izan behar dugu. Horixe da garatu beharreko konfiantza, eta izan dezakegun armarik onena da.

Ziberespazioa erakusteko ardua haien esku uzteko, hasteko, ulertu beharra dugu ez dela lasterketa bat, non erreferenteok adingabeek baino lehen ikasi behar dugun sareen erabileraren inguruan gero haien gidari izateko.

Egoera horretan dagoenak, esperientzia hori lehiaketa balitz moduan biziko du, eta noizbait galtzen badu, adingabeak haren babes-estrategiatik kanpo geldituko dira.

Onartu beharra dugu adingabeak erreferenteok baino trebeagoak direla ziberespazioa erabiltzen, eta aukera hori baliozkoa denez, gure lana ondokoa da: beraiek erakutsi behar digute zer mundutan mugitzen diren. Adingabeen munduarekiko lilura-harremanak, erabilgarri izan beharko luke, baita benetako munduan ere eta, hortaz, seme-alaben gidari izateko gai izan behar dugu, betiere euren mundua ezagutzeko gugan jarri duten konfiantzatik abiatuta.

Lan hori egiteko beharrezkoa den konfiantza lortzeko, adingabeen mundua errespetatu behar dugu. Errespetatzeak ez du esan nahi aldatu ezin dugunik, edo bideratu ezin digunik; errespetatzeak esan nahi du ez garela haien munduan sartuko elefante bat ontzi-denda batean sartzen den moduan; errespetatzeak esan nahi du beraiek esango digutela nola konponduko dituzten egokitzat jo ez ditugun alderdiak; errespetatzeak esan nahi du saiatuko garela ulertzen egoera bakoitzak haientzat zer esan nahi duen, erreferente moduan ahalik eta gidaritzaren egokiena eskaintzearen.

Behar dugun konfiantzak, utziko digu ikusten arazoak konpontzeko gai direla, baina gu ere han izango gara. Han egon behar dugu seguru eta lasai egon daitezen; gainera, erreferenteen lasaitasuna bera ere garrantzitsua da.

Adingabeen adinaren arabera, errazagoa edo zailagoa izango dugu haien munduan egotea, baina ohitura garrantzizko faktorea da egoteko aukera errazteko orduan. Hau da, zailagoa izango dugu 17 urteko gazte bati bere intimitatea erreferenteei azaltzen eskatzen badiogu, ez badugu aipatutako konfiantza aurretik landu. Hala ere, nerabetasunean, ohitura hori izan arren, adingabea intimitatea gordetzen saiatuko da. Eta garrantzitsuena da helduak direnean jakin behar dutela intimitatea euren irizpideen arabera erabiltzen.

Konfiantza, segurtasunaren emozioan oinarritzen da, eta alde biek seguru ikusi behar dute euren burua. Erreferenteak eta adingabeak seguru sentitu behar dute euren burua konfiantza-harremanean.

Erreferentea ezin da mundu zibernetikoan sartu zelatatzeke, hots, adingabearen telefono mugikorra eskura duenean kuxkuxean ibiltzeko; aldiz, adingabeak erakutsi beharko digu zer dagoen bere telefono mugikorrean, eta horretan oinarrituko da gure agerpena.

Adingabeen sareetan ez egoteko arrazoa, haien intimitaterako eskubidea da.

Adingabeek intimitaterako eskubidea dute, noski, edo beste modu batera esateko, adingabeek euren intimitatea babesteko zentzua garatu behar dute.

Gainera, ahaleginak egiten dira web sistema, jolasaren bidez edo arduragabekeriagatik, adingabeen intimitaterako erakustokia izan ez dadin, euren bizitza erakutsi ez dezaten, edo, behintzat, kalte egin diezazkien edukiak ezabatzeko aukera izan dezaten.

Argi dago intimitatea eskubide bat dela, eta argi dago adingabeek eskubide hori erabiltzen ikasi behar dutela.

Arazoa agertuko da intimitatearen eta segurtasunaren artean aukeratu behar dugunean.

Egoera horretan sen ona aplikatuz gero, erreferenteok seguru ikusi behar dugu geure burua adingabeen itsasoko, aireko, espazioko, lurreko edo WEBeko nabigazioa dela-eta.

Erreferenteok segurtasuna sumatzen badugu, kontrola sentituko dugu eta gure garuna lasaituko da. Lasaitasun horrek, seme-alabak hazteko giro egokia sortuko du, baita erabakiak hartzeko, beraien arazoan aurrean laguntzeko, entzuteko, eta zailtasunak dituztenean laguntzeko oinarri onak ere.

Erreferenteoi, segurtasunaren emozioak lasaitasuna eta kontrola emango dizkigu.

Sen onez erabili behar dugu aipatutako kontrola, ezin baita adingabe isolatzean edo aukerak gutxitzean oinarritu. Seguru ikusi behar dugu geure burua haiekin joanez, gurekin batera haiek gustura sentiaraziz, bizikidetzarako, komunikatzeko eta elkarrekintzarako (digitala zein analogikoa) gizarte-eremuak garatuz.

Eta adingabeek seguru eta lasai ikusi behar dute euren burua zerbait kontaktzen diguten bakoitzean; hori behar-beharrezkoa da. Familiak konfiantza eta errespetua izateko trebatu behar dira; horrela bada, adingabeek ez dute beldurrik izango zer gertatzen zaien esan behar digutenean.

Adingabeengan konfiantza garatuz gero, egokia ez den norbaitek leihora jotzen badu, heldu batekin egingo du topo, eta ez erraz erasotzeko moduko norbaitekin.



“11 urteko neskatila bat logelako leihora irteten da ia-ia egunero etxe aurretik igarotzen diren pertsonekin hitz egiteko. Batzuetan, leihotik bere logela erakusten die, zenbait gauza kontaktzen die eta, zenbait pertsonak, zenbait unetan, neskarekin hitz egiten dute. Batzuetan, pertsona batzuekin ados jartzen da kalean elkar ikusteko. Gurasoek asko errespetatzen dute alabaren intimitatea, eta egunero berarekin hitz egiten dute. Alabak esaten die nolakoa den leihoa, nor igaro den aurretik eta norekin gelditu den kalean elkar ikusteko. Gurasoak batzuetan alabarekin ere joaten dira, etxetik urrun, alabaren mundua ikustearren. Neskatila leihora irteten da nahi duen guztietan, eta badaki batzuetan pertsianak itxi behar dituela. Neskak kontrolatzen du nork eta noiz jo dezaketen leihoan, eta lasai dago, norbaitek arauk errespetatzen ez baditu, erreferenteak han daudelako, eta erreferenteak liluratzen dira neskak nola konpontzen dituen arazoak ikusten dutenean; izan ere, berak badaki zein diren ziberespazioaren arazoak”.

VEC Adimena

XXI. mendeko
zuzendaritza, emozioetan
oinarrituko da.

Emoziotik Emozioara.

Area Grupala

- Educación
- Empresa
- Deporte
- Sanidad

Area Personal

- Desarrollo Potencial Humano

Emotional Network S.L.

Alda Mazarredo 6,
48001 Bilbao
944 249 097

www.emotional.net

Info@emotional.net